

Basque Culinary Center FOOD+I Klusterreko bazkide teknologiko berria

2015/01/14

FOOD+I Klusterra 70 enpresak eta ikerketa-zentrok osaturiko elkarte pribatua da, lankidetzaren eta berrikuntzaren bitartez Ebro Bailarako nekazaritzako elikagaien sektorearen lehiakortasuna eta garapena sustatzea xede duena. Enpresa elkartekideen sare sendo bat du, eta horien artean daude honako hauek: IRTA (Kataluniako Generalitatearen Nekazaritzako Elikagaien Ikerketa eta Teknologia Institutua), TECNALIaren osasun-alorra, AZTI (itsasoari eta elikagaiei loturiko ikerketan espezializatua), CIC nanoGUNE Ikerketa Zentro Kooperatiboa (nanoteknologian espezializatua) eta Errioxako CTIC-CITA Elikagaien Teknologia eta Enpresa Zentroa.

(Gehiago irakurri)

